

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

353/2022 prozedura arruntan bertaratzea

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, argitara ematen da 353/2022 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegira bidali dela. Errekurtso hori Roberto Ramírez Valle eta Carmen Pardo Maeztuk eskatuta bideratu da, Alkateztzak 2022ko otsailaren 15ean emandako 79. ebazpenen aurka. Horren bidez, 2021eko abuztuaren 3ko 416. Alkatetza-ebazpenaren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa baliogabetu zen.

Gogoratzen da iragarki honek auzi honen inguruan agerraldia gauzatu eta esku hartu nahi duten interesdun guztiei dei egiteko balio duela, eta horretarako bederatzi eguneko epea ezartzen dela. Epe hori iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

Ondategin, 2023ko urtarrilaren 18an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA